




Nostalgia

1 Idatzi oporretan faltan botatzen dituzun hiru pertsonaren izenak.

2 Idatzi berriz joan nahi zenukeen bi lekuren izenak. Zergatik nahi zenuke leku horietara itzuli?

3 Begiratu Emoziotegiko 62-63. orrialdeetako irudiko bi zabuei eta bi txakurrei.

● Berdinak dira? Zer desberdintasun dituzte?



● Zein gustatzen zaizkizu gehiago? Zergatik?



4

Irakurri Emoziotegiko 62. orrialdean **nostalgiari** buruzko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra)**, dagokionaren arabera.

- Nostalgia babesgabetasun-modu bat da.
- Nostalgia pozten gaituen gabezia bat da.
- Nostalgia gabezia batek eragiten du.
- Nostalgia zerbait oroitzean izaten den poz-sentimendua da.
- Nostalgia sentitzen dugunean, zenbait pertsonaren, gauzaren, lekuren eta abarren falta sumatzen dugu.

● Orain, zuzendu esaldi okerrak.

5

Inguratu **nostalgiaren** definizioa.

1. Besteen zoritxarrak eragiten duen tristura.
2. Iragandako une zoriontsuak oroitzean sentitzen den tristura.
3. Tristura sakon eta iraunkorra.
4. Sentimendu negatibo batek eragiten duen tristura.
5. Interes-galera orokorra eragiten duen tristura sakona.

● Zeri dagozkio beste definizioak? Idatzi hitz bakoitzaren ondoan aurreko zerrendatik dagokion zenbakia.

● malenkonía → _____

● samintasuna → _____

● gupida → _____

● depresioa → _____

6

Nolako dela esango zenuke **nostalgia** sentitzen duen pertsona bat? Begiratu ereduari, eta osatu.

- *nostalgia* → *nostalgiko*
- *tristura* → _____
- *depresio* → _____
- *samintasun* → _____
- *gupida* → _____
- *malenkonia* → _____

7

Osatu esaldiak 6. ariketan aukeratu dituzun hitzak erabiliz.

- Nire alaba Mireia triste jartzen da beste herrialde batzuetako haurrak gosez daudela ikustean. Oso _____ da.
- Emaztea hil zitzaionetik, osaba Juanek gauza guztiekiko interesa galdu du. _____ dago.
- Iñaki galtzaile txarra da. Inbidia eman zion bere anaia Koldok lasterketa irabazteak, eta _____ dago.
- Mikelek egun batzuk _____ igaro ditu, hondartzan zeinen ondo pasatzen zuen gogoratu.
- Laida _____ dago amona agurtu behar duelako. Baina berehala pasatuko zaio.
- Mikeli nostalgiak luze irauten dio. Bada denbora _____ samar ikusten dudala.

8 Irakurri Maialenek kontatzen duena, eta erantzun galderi.

Maialen

Gaur, nire altxorren kutxa ireki dut eta haurtzaroko udako argazkiak aurkitu ditut. Bai ondo pasatzen nuela duela berrogei urte! Gogoan ditut hondartzan egindako ibilalditxoak, itsasoaren kresal-usaina, biltzen nituen itsas kurkuiluak... nire laguneren izenak ere gogoratzen ditut. Garai hura oroitzean triste jarri naiz. Baina, gero, hala pentsatu dut: "Pozgarria da uda haiek hala gozatu izana!"

● Maialenek nostalgia sentitu zuen? Zeren nostalgia?

● Nola gainditu zuen nostalgia Maialenek?

● Nola sentitu zen azkenean?

9 Uste duzu nostalgiak baduela atal positibo bat? Hautatu.

Ez, oso tristea baita egon nahi zenukeen pertsona horrekin egoterik ez izatea.

Bai, zure bizitzan oso zoriontsu egin zaitzaketen gauzak edo pertsonak daudela irakasten dizulako.

10 Idatzi neguan faltan botatzen dituzun udako bost gauza.

11 Idatzi udan faltan botatzen dituzun neguko bost gauza.

12 Idatzi **nostalgia** hitzak burura ekartzen dizkizun hitz guztiak.
